



**Dokumentua:**

Igorreko eskola bidea: Bideak martxan jartzea eta kale sentsibilizazioa

**Nori zuzendua:**

Igorreko eskolako guraso elkarte

**Proiektuaren arduraduna:** Idoia Ramirez de Okariz

idoia.r@urtxintxaeskola.eus



## SARRERA

«Eskola bideak» haurren autonomia garatu nahi duen egitasmoa da. Era berean, haurrak eskolara bide seguruetatik, bakarrik eta oinez joatea sustatu eta erraztu nahi duen ekimena izanda, sozializazio aukerak sortzen ditu, eta, gainera, etorkizunera begira ohitura osasuntsuak finkatzen ditu.



### PROIEKTUAREN HELBURUAK

#### Helburu orokorra:

- Parte hartzearen bidez eskolako hezkuntza komunitate osoa (ikasle, familia, irakasle, gizarte eragileak eta tabernari/merkatariak) haurren hezkuntza prozesuan inplikatzea eskola bideak eraikiz.

#### Helburu zehatzak:

- Eskola bideak proiektuak era autonomoan denboran zehar iraungo duten bitartekoak sortzea
- Haurren parte hartzea eta autonomia garatzeko bitartekoak sortzea
- Hezkuntza komunitatearen koordinazioa eta parte-hartzea sustatzea
- Haurren eta familien ahalduntzea indartzea



## 2019 – 2020 IKASTURTEKO EMAITZAK

### KOMUNITATEA SARETZEA

#### TALDE ERAGILEA

Udala, eskola, guraso elkarte eta Zaztaparrak Asti Taldea biltzen dituen foroa da talde eragilea. 2019 – 2020 ikasturtean egindako ekimenak taldea eragilea sendotzea lortu zuen, taldearen zein taldeko kolektibo bakoitzaren autonomia nabarmen handituz. Eragileen arteko sarean oinarritu ziren ekimen guztiak, prozesuaren jarraipena zein egokitzapena taldearen ardura gisa ulertuz

### DIAGNOSI PARTE HARTZAILEA

#### HAURREKIN

Haurrekin guztira 3 saio sortua egin ziren, aurkezpen, bideak ezagutzea eta bideen behaketa barne hartuz. Haurrak ekimenaren erdigunean kokatu ziren, herriarekin eta komunitatearekin duten harremana ere sendotuz eta heldu eta haurrak aurrez aurreko elkarriketetan murgilduz.

#### FAMILIEKIN

Familiak hasieratik inplikatu nahi izan ziren ekimen honetan, informatuz eta euren etxeetan, haur eta helduen artean bete beharreko esku orriak osatuz. Hiru funtzio bete zituen esku orri honek, familiak informatzea, elkarlana sustatzen hastea eta diagnosirako lehen pausuak markatzea



## HAURREKIN

Haurrekin egindako saioek sentsibilizazio honetan lagundu zuten, eurak hasiera hasieratik informatuak, kontsultatuak eta prozesuan kokatuak izan direlarik.

## FAMILIEKIN

Aurrez aipatu bezala, familien sentsibilizazioa etxe bakoitzean bete beharreko esku orriaren bitartez hasi genuen. Esku orrian bertan aurrera begira egingo zen saiorako gonbidapena ere helarazi zitzaion, Oñatin Bagabiltza ekimena ezagutzeko saiora alegia.

Saioaren ostean, eta IGEaren erreferentziarekin, familian lehen bilera egin zen, ekimena zabaldu eta familien konpromisoak zeintzuk izan zitezkeen definitzeko.

Hurrengo pausu gisa, eskola ostean, trafiko gehien pilatzen den gunea okupatzeko interbentzio ekintza bat planteatu zen. Hala ere, COVID 19aren ondorioz, ekimena bertan behera utzi behar izan zen.

## AURRERA BEGIRA JARTZEA

### HAUR ETA FAMILIEKIN

Martxoan COVID 19a etorri zen, eta talde eragileak argi izan zuen hasieratik ekimena itxi gabe ezin zela utzi. Beraz, ekimena komunitatearekin ixteko asmoz ikasturtean eginikoak barne biltzen zituen bideoa osatu zen, eskolaren sareen bitartez zabaldu zena.



## 2. FASEA: BIDEEN IREKIERA ETA KOMUNITATEAREKIN LANKETA

### HELBURUAK

- Ikasleekin bideen birsortzea eta bideak markatzea (bideak errebisatu, irudiak sortu eta bideak markatu)
  - Bideen errebisioa egitea COVID 19aren egoerari erantzunez
  - Genero perspektibatik bideak zein ohiturak behatzea eta honen bilakaeran eragitea
- Komunitatearekin lanketan sakontzea
  - Haurreskola ekimenaren parte egitea
  - Eskola komunitateko gainontzeko kideak (zaintzaileak, eskolaz kanpoko hezitzaileak, autobus gidariaké ) ekimena presente izatea eta parte hartzea
- Familien sentsibilizazioarekin jarraitzea, familiak ekimenera zein esku hartzetara hurbilduz.
- Herrian komunikazio lanari garrantzia ematea



- I. **EGITASMOA GOGORARAZI:** Eskolak egitasmoaren berri emango du tutoretzatan, iazko esku orriak erabiliz.
  - a. Eskolan **EGITASMOA GOGORATZEARI ekin**, parte hartu izan duten haurrak erdigunean kokatuz eta COVID19 egoeran dituzten beharrak azpimarratuz. Aurkezpen hau ikasgelaz ikasgela egingo da, LH3, LH4 eta LH5
  - b. **HELDUENTZAKO SAIOA edota baliabidea**, saioetara familiak hurbiltzea zaila izaten denez, familiengana geu hurbilduko gara, ekimenaren eta eskola bidearen onuraren inguruko lanketa bat ekimen modura proposatuz. Hurbiltzea fisikoki edota baliabide fisikoen bitartez izan datek (esku orria, galdetegia, bideoa...)
  - c. **MEZUAK IKASTURTE GUZTIAN PRESENTE:** Ikasturtean **2 saio edota ekimen** egitea proposatzen dugu (gabon inguruan 1 eta aste santu inguruan beste 1) , eskola bideen egitasmoa zabaltzeko eta presente egoteko.
  
- II. **ESKOLA BIDEEN ERREBISIOA eta BIDEAK MARKATZEA**
  - a. **HAURREKIN LEHEN SAIOAK:** bideak bergogoratuko ditugu: lau bide daudela, bide hauetan behatu izan duguna, nola datozen haurrak... Saioan bertan bideak markatzeko irudi eta seinaleak osatuko ditugu, pandemia egoera honekin ordutegiak ere ezberdinak dituztenez bideak garbi izateko eta modu autonomoan egin ahal izateko.
  - b. **BIGARREN SAIOAK:** kalean egin nahiko genituzke, eurekin batera sortutako irudi eta seinaleak bideetan kokatuz. Bideak markatzea alegia.
  
- III. **ESKOLA BIDEA SAREA SORTZEA.** Komunitatea proiektuan inplikatzeko 4 esparrutan egingo da eskuhartzea, talde eragilea errotuz.



- a. **AUZO ERAGILEAK:** Auzoko eragile laguntzaileak identifikatzea eta proiektura atxikitzea (denda, tabernak, jubilatutako elkarte, auzoko elkarte ezberdinak...), horrez gain, saio ireki bat antolatuko dugu auzoko elkarte eta eragileak, merkatariak, irakasleak, familiak...gonbidatuz. Asanblada horretan egitasmoaren nondik norakoak eta diagnostikoa aurkezteaz gain, hurrengo fasean inplikatzeko eskatuko diegu.
- b. **ESKOLAKO** arduradunak proiektura atxikituko ditugu, eta eskolaren hezkuntza proiektuan **ESKOLA BIDEAK** txertatu, eskolaren ardurak zehaztuz hurrengo urteetan ere proiektuari jarraipena eman ahal izateko.
- c. **HAURRESKOLA:** iazko ikasturtean haurreskola kontuan hartzearen beharra azpimarratu zen, eskola eremu bera elkar banatzeaz gain 0 – 2 urte bitarteko haur eta familien beharrak ere kontuan hartuak izateko
- d. **ESKOLAKO LANGILE ETA ZAINTZAILEAK:** Eskolaren baitan kokatzen diren hezitzaile eta zaintzaileak ekimenera atxikitzea beharrezkoa dela ikusirik, jantokiko arduradunak, eskolaz kanpoko hezitzaileak eta autobusetako gidariak ekimenaren hurbiltzeko ahalegina egingo da, informatuz eta parte hartzera gonbidatuz

#### IV. **ESKOLA BIDEAN INDARTZEN JARRAITZEA ETA FAMILIEN ATXIKIMENDUA LORTZEA.**

- a. **Familiekin lan pedagogikoa egiten jarraitu:** Proiektu hau arrakastatsua izateko, familien konfiantza beharrezkoa da, beraz 2. Fase honetan lan honi jarraipena emango diogu. Saioak haurren autonomiaren lanketari eta familien beldurrei loturiko izango da, helduen presentzia bideetan gutxiagotzeko eta haurrek bidea bakarrik egin ahal izateko.
- b. Kale interbentzioekin eta aldarrikapenekin jarraitu
- c. Familien arteko bilerak indartzen jarraitzea, aurrez gaian interesa zuten familiak ekimenera erakarriz

#### V. **KOMUNIKAZIOA**

- a. **Eskola bideen ekimena herrian zabaltzea,** honetarako tokiko komunikabideak zein eragileek dituzten sare eta baliabideak erabiliz.







<p>Kalean: ekimena ezagutzera emateko lehen ekintza edo komunikazioa</p>									
<p>Auzotarren sarea: ekimenaren azalpena merkatari eta ostalariei</p>									
<p>Hurrekin (LH3 - LH4). Guztira ordu beteko 9 saio</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Bideak gogoraraztea eta lantzea</li> <li>- Bideak markatzeko iruditegia sortzea</li> </ul>									
<p>Talde eragilearen hirugarren bilera</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Eskolako lehen saioen ondorioak azaldu eta kontrastatu</li> <li>- Kale ekintza + helduena pentsatu</li> <li>- KALEAN komunikazioa landu</li> </ul>									
<p>Helduekin: ekintza</p>									
<p>Kalean: ekimena ezagutzera emateko lehen ekintza edo komunikazioa</p>									
<p>Auzotarren sarea</p>									
<p>Hurrekin (LH3 – LH5). Guztira ordu beteko 9 saio</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Bideak markatzea modu ludikoan</li> </ul>									
<p>Astebetez bideetan pilotajea egitea</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Bideetan ematen diren arazoak identifikatzeko eta aurrera begira hobetzeko</li> </ul>									
<p>Talde eragilearen bosgarren bilera</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Eskolako saioen ondorioak azaldu eta kontrastatu</li> <li>- KALEAN komunikazioa landu</li> </ul>									



## EBALUAZIOA

### PROZESUAREN EBALUAZIOA

Prozesuaren ebaluazioak garrantzia berezia izango du ekimenean, prozesu parte hartzaileez hitz egiten dugunean etengabeko errebisioz hitz egin behar dugulako. Beraz, prozesuaren ikuspegi osoa izango duen TALDE ERAGILEA izango da honen arduraduna, prozesua sortzen diren beharren arabera moldatuz eta egokituz.

### ERAGINAREN EBALUAZIOA

Eraginaren ebaluazioa ekintzetatik eratorritako emaitzetan behatuko da batez ere. Haurren kontzientziario eta asebetetzea neurtuko da, eta garrantzia bereziz behatuko dira familia eta helduekin egiten diren lanketen emaitzak.

Haurren saioetan esaterako, saio amaieretan euren asebetetzea eta proiektuarekiko atxikimendua ebaluatuko da, baita euren beharrak nola asetu genitzakeen ere.

Familien saioetan familien beharrak entzuetik hasiko gara eta ekimenaren onuren zein sortzen dizkigun beldurren inguruan jardungo dugu, saioz saio bi puntu hauek nola garatzen diren behatuz eta elkarrizketa sortuz.

### EMAITZEN EBALUAZIOA

Emaitzak, aurrez aipatu bezala, behaketa eta elkarrizketen bitartez ebaluatuko dira. Honez gain, eskola bideak martxan jartzerako orduan pilotajeari garrantzia emango diogu, bideetan ematen diren gora beherak behatu eta hobekuntzak lantzeko.



Edozein zalantza, proposamen edo zehaztasun  
gehiago behar izanez gero:



**urtxintxa**  
*eskola*

**Idoia Ramirez de Okariz**  
PARTE-HARTZE ARLOA  
[www.urtxintaeskola.eus](http://www.urtxintaeskola.eus) | 944320445  
Zabalbide 26, 48006 Bilbo